

Rafa Ugalde

Relax



Azalaren eta bildumaren diseinua: Esteban Montorio

Argitaratzea:

Txalaparta argitaletxea E.M.
Navaz y Vides 1-2
78 Posta-kutxa
31300 Tafalla
NAFARROA
Tel. 948 703934
Faxa 948 704072
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

Lehenengo edizioa

Tafalla, 2007ko azaroa

Copyright

© Txalapartak
© Rafa Ugaldek

Maketazioa

Monti

Inprimaketa

Graficas Lizarra

I.S.B.N.

978-84-8136-506-1

Lege gordailua

NA-3.225-07



Inoizkorik samurrena

<p>Starfishes.</p> <p>600 873 086</p> <p>BIBLIAN</p> <p>francés</p> <p>Eduarne</p> <p>22-</p> <p>erbosas, y damos salidas</p> <p>a chico eróticos se baños solo Red 15min escorts</p> <p>OS</p> <p>RIAS a. Mode-</p> <p>OS</p> <p>AR, Ce- lico, Tam- Visa.</p> <p>OS</p>	<p>Relax</p> <p>CAPRICHOS NOVEDADES</p> <p>10 SEÑORITAS suite fantasía, cuerpos escandaloso, complacemos todos los servicios. ☎ 667887872</p> <hr/> <p>CAPRICHOS TOTAL DISCRECIÓN</p> <p>y profesionalidad, 10 señoritas sensuales, servicios completos. 24h. Salidas. ☎ 667887872</p> <hr/> <p>CAPRICHOS 24H</p> <p>CONTINUA renovación señoritas. Atendemos en lencería, Consoladores. Hotel- Domicilio. ☎ 944356578</p> <hr/> <p>CARLA RELAX, SEÑORITAS</p> <p>ESPAÑOLAS, auténticas lesbicas, amas y sumisas, masajes, absoluta discreción. ☎ 944478078</p> <hr/> <p>CARMEN MODELO</p> <p>CARIÑOSA 22A. 100P. Cullito respingón. ¡A todo sit</p>	<p>Relax</p> <p>IDOIA y SORAYA</p>  <p>636 695 806 - 678 983 470</p> <hr/> <p>KAMILA</p>  <p>663 293 376</p> <hr/> <p>PAULA</p>	<p>Relax</p> <p>CHICO BRUNO SUPER LECHERO</p> <p>NIÑATO Vicioso, Completo, complaciente. 24h. Visa www.puruluxoesports.com ☎ 638460042</p> <hr/> <p>CHICO DIEGO 19A</p> <p>SUPERLECHERO, dotadísimo, fibrado. Supervicioso, siempre cachondo. Sexo a tope. ☎ 664714056</p> <hr/> <p>CHICO ERICK NOVEDAD</p> <p>PARAGUAYO 18A, carísimísimo. Completo ☎ 630478060</p> <hr/> <p>CHICO GABRIEL</p> <p>SUPERNOVEDAD, jovencito, marcado. 22x6, completo, con mucha leche. ¿Quieres? Recibo solo. Salidas. 24h. ☎ 676259384</p> <hr/> <p>CHICO LUCAS</p> <p>FIBRADO. Bien dotado. Morboso. También parejas. www.gaydar.es/lucashunk ☎ 696664622</p> <hr/> <p>CHICO MICHEL 22A</p>	<p>Relax</p> <p>DIANAS SEXYS 24H</p> <p>DISCRECIÓN. Céntrico. Salidas ☎ 690783597</p> <hr/> <p>DISCRETA RUBITA SENSUAL</p> <p>DOMICILIOS. ☎ 600349911</p> <hr/> <p>DISCRETITA SUPERMADURITA.</p> <p>BOQUITA viciosa. Enléchamla ☎ 695714304</p> <hr/> <p>DOLCEVITA 1H TODO 90€ 24H</p> <p>ESPAÑOLAS. Duplex incluye do lesbico, griego, boca en chada... ☎ 670981005</p> <hr/> <p>DOMINA PLUS</p> <p>AUTENTICA ☎ 676376039</p> <hr/> <p>DONOSTIARRA ZURINE 25A</p> <p>ENLECHAME la boquilla (s Enculame. ☎ 627098378</p> <hr/> <p>★ ★ CLUB ★ ★</p> <p>RAC</p> <p>ETRO</p> <p>de, S</p> <p>TAS</p> <p>NALE</p> <p>ISE</p> <p>MAS</p> <p>107E</p> <p>ARRI</p> <p>ca.co</p> <p>35 4</p> <hr/> <p>IAD,</p> <p>IR</p> <p>505</p> <hr/> <p>67811</p> <hr/> <p>CASANDRA RUBIA ACTRIZ</p> <p>Porno. 24h. ☎ 635388836.</p> <hr/> <p>PURO LUXO</p> <hr/> <p>CLARA 22A MORENA</p> <hr/> <p>DUPLEX CHICA</p> <p>60€ ☎ 678117999</p> <hr/> <p>ESPERE DELA</p>
--	--	---	---	--

Putarik putena ez da gizonezko gehien izorratzen dituen.

Putarik putena ez da zakila ondoen xurgatzen duena, ezta ere, gorputzeko zulo guztiak erabiltzen dakiena.

Putarik putena, betiere, musurik gozoena gordean dakarrena.

Bartzelona hiri handia da, nire moduan herri batean jaio eta bizi den batentzat; are handiagoa, bakarrik dagoen batentzat, eta areago, bakarrik egoteaz gainera, bakar sentitzen den batentzat.

Bakardade sentrazioa neukan, bai, betikotzat jo nuen maitasuna galdu nuenez geroztik; abandonatu ninduenez geroztik, hobeto esan. Baina, egia esan, ondo gogoratzen dudanean, bakardade sentrazio hori lehenagokoa zen; abandonoa bera, maite nuen andreak alde egin aurretik nabaritu nuen, alde egitea abandono fisikoa baino ez zen izan, baina benetako abandonoa askoz ere lehenago igartzen da erraietan. Abandonoa gorabehera, ni beti izan naiz maitearekiko fideltasuna gordezen dutenetakoa, eta ez nintzen kapaz izan beste andre batengana joateko, nabaritzen nuen hutsunea betetzeko behar nuenaren bila, alegia; eta, beharbada, jakin ere ez nekien ondo zer behar nuen: samurtasuna ala sexua, baldin eta biak banatzerik badago, jakina. Kontua da, ez nintzela ausartu ezeren bila hasten.

Abandonatze fisikoaren ostetik ere, ezintasun hori areagotu egin zitzaidan, tristeegi nengoen-eta ezertarako, indar barik, energia barik bezala. Hala nenbilen lanak, astero-astero, Bartzelonara joatera behartu ninduen arte. «Zer egin dezake horrelako hiri batean bakarrik dagoen batek?»; «Makina bat gauza», izango litzateke askoren erantzuna, baina, egia esan, egoera horretan egon garenok badakigu jakin, hirian dauden kale, parke, museo eta txoko guztiak ikusteaz gainera, hainbat ordu geratzen direla bakarrik egoteko, hotel bateko logela baten.

Bestalde, abandonatze fisiko hartatik, ia urte bat igaro zen, eta gorputzean ere hasia nintzen igartzen luzaroan jasandako emakume falta; eme falta, behinik behin. Kaletik nindoala edota lanean ere, emakumeei eskaintzen nizkien begiradetan igartzen nuen eme falta hori, ezin nien-eta aldetik begirik kendu; eta askotan neska baten ipurdiari erreparatzen nion, edo aldean kamiseta estu-estua zeraman beste baten titi ondo markatuei. Gero, hoteleko logelan bakarrik nengoela, irudi haiek guztiak etortzen zitzaizkidan gogora, eta irudiekin batera beroaldia hankartera. Halakoetan, arropa erantzi eta ohe gainean etzaten nintzen, galtzontziloetan; eskuak emakume batenak balira bezala, laztanka hasten zitzaizkidan, bularraldetik beherantz, sabeleraino, eta handik izterretara, gora eta behera; izterretatik barrabilalara eramaten nuen eskua, barrabilak eta zakila ondo igurtzi galtzontzilo gainetik zakila gogortuta nabaritu arte, orduan, galtzontziloa erantzi eta esku ahurrarekin zakila laztantzen hasten nintzen, leun, zakilburuan berotasuna igarri arte; hortik aurreranzkoa bortitzago bihurtzen zen, zakila ondo estutu eta gora beherako astinaldiak hasten ziren; zakila astintzearekin batera sabela eta ipurmatrailak estutu eta samba dantzatzean

bezala eragiten nien, eme batekin narrutan benetan egitean bezala. Eta ahotsa ere askatzen nuen, kanpaijotzea benetako narrutaldi baten antzekoago bihurtzeko; «mugi ezazu gerria laztana» esaten nuen, gogoan nuen emearen aurpegia irudikatuz, edota «jar zaitetz katamar, urdanga hori, atzetik jo behar zaitut-eta!», eta neu ere katamar jartzen nintzen zakila astintzeari utzi gabe. Eta astinaldiak ere gero eta bortitzagoak ziren, hasperen batekin korritzen nintzen arte.

Horrelako bakarraldiak sarri izaten ditugu hoteletako logeletan hainbat ordu eman behar izaten ditugunok, nireak, baina, sarriegiak ziren sasoi hartan, eguneroak, egia esan. Emakume-gosez pasatzen nituen egunak, gauak eta arratsaldeak, eta emakume-goseak, jakina, egunero masturbatzera eramaten ninduen, askotan behin baino gehiagotan, zeren hain nuen beharrian handia, zakila astinduta ere nekez lortzen bainuen hankarteko tenperatura beheratzea. Eta txakur goseak hezurra amesten duen bezalaxe, nik emakume biluziekin egiten nuen amets. Ez nuen, ordea, inolako harremanik emakumeekin, sexu harremanik esan nahi dut; galdutako harremanarekin aukera guztiak joan izan balitzaizkit bezala; edo emakume bat berriro nirekin maitemindu arte itxaron behar ote nuen, bada?

Bakarrik ari nintzen bazkaltzen, arratsaldeko hirurak aldera ziren, berandu samar bazkaltzera joateko, baina nahiago izan nuen goizeko lanaldia luzatu eta arratsaldea libre atera. Betiko lez bakarrik etorri nintzen bazkaltzera, saltzaile lanetan sarritan gertatzen da hori, eta Burger King batera sartzea erabaki nuen, edozein tabernatan menu bat jatean bakarrago sentitzen

nintzelako, inguruko mahaietan lagunekin edo lankideekin daudenek arraro begiratzen zidatela ematen zidana; Burger King moduko frankiziak, ordea, inpersonalagoak dira, aseptikoagoak, eta taldeka eserita daudenak ere aparteago daudela ematen du. Neure hanburgesa eta Coca Cola bat hartuta, mahai batean eseri nintzen, hanburgesa jan bitartean egunkaria ireki nuen. Egunak neramatzen egunkaria erosi eta, bakarrik eta lasai egoteko tartetxo bat nuenean, iragarki laburren sailetik zabaltzen; eta iragarki laburren sailean, *Relax* azpisailari baino ez nion erreparatzen. Hainbat iragarki zeuden, eta guztiekin berotzen nintzen: *Flor del Caribe y seis amigas más, llámanos; Teresa y Pepita, maduritas; Viciosas, dúplex real, observa como hacemos el amor, y participa;... Flor del Caribe* irakurtzen nuenean, Karibe inguruko mulata bat imajinatzen nuen, haren izter sendoak eta ipurmami borobilak, eta bulkada moduko bat igartzen nuen barrabiletan. *Maduritas* hitzarekin ere morbo berezia sentitzen nuen, norbera baino askoz zaharrago den emakume batekin narrutan egiteak beti eragin izan dit-eta sentsazio berezi bat; neure adineko-hogeita bederatzi urte nituen artean- semeak izan zitzakeen andre bati narrua jotzea zirrargarri egiten zitzaidan, oso. Eta nire amets erotikoen punturik gorena aldi berean emakume birekin egoteak hartzen zuen, haiek zelan elkar ukitzen duten ikustea, elkarren gorpuzta zelan milikatzen duten, eta, batez ere, haiek biak batera nire zakila milikatzen imajinatzeak eta gero biak izorratzen nituela pentsatzeak lehertzeaz jartzen ninduen, eta zakilburuan sugar berezi bat sortzen zidan.

Hanburgesa amaitu nuen, egunkaria tolestu, eta alde egin nuen hotelerantz, iragarki horietan agertzen ziren telefonoetara deitzeko erabakia hartuta.

Logelara sartu, arropa erantzi, ohe gainean biluzik etzan, egunkariko *Relax* saila aurrean jarri eta, zakila igurtzi bitartean, telefono haietara deitzen hasi nintzen. «Informazioa nahi nuke, galdetuko diet», pentsatu nuen, jasanezina egiten baitzitzaidan emakume-gose hura.

Lehenengo zenbakira deitu nuen, ezkerreko eskua zakila igurtzen; «Bai esan?», erantzun zidan emakumezko baten ahotsak; «Informazioa nahi nuke», esan nion alde zurratik pentsatu bezala, pentsatuta izan ez banu, beharbada, ez nintzatekeen berba egiteko kapaz izango eta. «Bai, laztana, neska talde bat gara, zerbitzu guztiak egiten ditugu; gutxieneko prezioa hirurogei euro. Valença kaleko 273 zenbakian gaude. Noiz etorriko zara?». «Ordubete barru hortxe nago», erantzun nion joateko asmo barik, erdi dardarka, bat-batean adorea galdu nuen-eta, eta uste dut berak ere ahotsean igarri zidala gezurra, «Agur» lehor batez eskegi baitzuen telefonoa.

Aitortu behar dut, beldurra gorabehera, hankartea areago berotu zitzaidala, eta sentsazio berezi batek harrapatuta, arnasa apur bat estututa, eta bihotza kolpeka, bigarren zenbakira deitu nuen. «Bai?», esan zidan atso zahar batena ematen zuen ahots batek. «Informazioa nahi nuke», esan nuen berriro, «Bi emakume daude hemen, helduak, eta zerbitzu guztiak egiten dituzte, baina informazio gehiago nahi baduzu, bertara etorri beharko duzu, Nicaragua kaleko 1 zenbakian gaude, gaueko hamarrak arte». «Eskerrik asko», erantzun eta segituan eskegi nuen aurikularra.

Kitzikapenak gora egin zuen, eta nire ezkerreko eskuak zakila laztandu barik, ondo estutzen zidala konaturatu nintzen, eta gorabeherako mugimendu geldo batez astintzen zuela. Hirugarren zenbakia markatu eta

galdera bera egin nuen. «Neska bi gara eta zerbitzu guztiak eskaintzen ditugu, baina badugu duplex zerbitzu berezia ere; lagunak eta biok elkarrekin egiten dugu narrutan zure aurrean, eta nahi baduzu parte har dezakezu gurekin, edo bestela, guri begira gera zaitezke eta masturbatu, guk amodioa egiten dugun bitartean». Segituan eta ezer erantzun barik eskegi nuen, zakila sutan neukan eta ezkerreko eskuak eragiten zizkion astinaldiak bortitz bihurtu ziren; bat-batean etorri zitzaidan sabela eta bularra ziprztindu zizkidan eiakulazioa.

Ez nintzen kapaz izan, horrelako leku batera joateko; aspaldian hartzen ari nintzen joera putetxe batera joatea baino patologikoagoa iruditzen zitzaidan arren. Orduan ez neukan, baina, gaur egungo ikuspegia; gaur egun putetxeetara joatea osasungarri ere izan litekeela esango nuke, eta argi eta garbi adieraziko nuke masturbazio obsesibo hura patologikoa zela, eta areago, zoritxarrez jende asko dabilela ni sasoi hartan ibili nintzen bezain gaixo, bai gizonezkoak eta baita, era berean, andrazkoak ere.

Gau hartan, ezin izan nuen begirik bildu, kitzikaturik eta aurikularretik hitz egin zidaten emakume haiek burutik kendu ezinik; ez nituen ikusi, baina imajinatu egiten nituen egoera guztiak: mulatarekikoa, *madurita*-rekikoa eta duplexarena. Biharamunean ere, horrela eman nuen goiz osoa, eta bazkalorduan berriro aprobe txatu nuen *Relax* sailari begiradaxo bat egiteko. Hantxe zeuden aurreko eguneko iragarkiak niri deika bezala: *Flor del Caribe y seis amigos más*; *Teresa y Pepita, maduritas*; *Viciosas, dúplex real*. Burua hartzen zidaten iragarkiok, neuronen artean beste ezertarako lekurik ez banu bezala; sabel barrua ere kirioek hartuta nuen, arnasa estututa lez. Oraingoan bai, esan nion neure buruari.

Hotelera heldu nintzenez, logelara sartuaz batera, ohe gainean eseri nintzen egunkaria eskuan. Aurreko egunean deitu nuen lehenengo telefonora deitu nuen. Ostera ere, «bai?», erantzun zuen emakumezko baten ahotsak, baina nire galdera zuzenagoa izan zen, «zuen helbidea jakin nahi nuke», esan nion, «noiz etorriko zara?», «bostak aldera», erantzuna ere erabakitasunez bota nion, sabel barruko kirioak sutan nituen arren, «Valença kaleko 273an gaude, 3. solairuan, atariko txirrinez masajista jartzen du; «Eskerrik asko, eta gero arte», izan zen nire azken erantzuna.

Dutxara sartu nintzen, ondo xaboizatu nuen gorputza goitik behera, zakila eta hankartea bereziki. Dutxak ez ninduen askorik erlaxatu, ezin nuen sabelpeko ezinegona baretu. Jantzi eta oinez abiatu nintzen, hamabost minutuko osteratxoa baino ez zen hoteletik Valença kaleko 273 zenbakira. Hamabost minutu luze izan ziren, ordea, luze eta deseroso; jakaren lepo altxatuekin aurpegia ostendu guran bezala nindoan, eraikuntzen bazter ondo-ondotik, hormen babesaren bila dabilen itzalaren moduan, milioi bi bizilagun dituen hiri bateko lau milioi begiak begira banitu lez.

Atariko atean atezain automatikoari erreparatu nion, eta telefonotik adierazi zidaten moduan, hirugarren solairuko txirrinetako batean masajista jartzen zuen. Txirrina sakatu eta erantzunik gabe zabaldu zidaten atea. Igogailua hartu barik, eskaileretatik igotzea erabaki nuen –nahiko estualdi neraman aldean, igogailuko espazio estuan sartzeko–; hirugarren solairura helduta, solairuko bi ateetako bat zabaldu egin zen nik txirrina jo aurretik.

«Arratsalde on!», agurtu ninduen ugazabandreak antza zuen emakume batek. «Arratsalde on!», besterik ez nuen erantzun; egia esan, nahiago nuen isilik egon,

horrelakoetan, zer edo zer esan gurak lelokeriak esanarazten dizkit-eta. «Pasa zaitez ondoko gelara, eta segituan etorriko dira neskak». Ondoko gelara sartu nintzen, egongela txiki moduko bat, sofa bat baino ez zegoen hormetako baten ondoan, baina ez nintzen eseri, zutunik geratu nintzen, urduritasunak eraginda-edo; segituan etorri zen berriro ugazabandrea, eta haren atzetik neskak azaldu ziren, banan-banan, izena esan eta joan egin ziren: Maite, Maika, Susana, Sandra, Veronica, Eva. Kolore biziko bodyak eta zapata takoidunak jantzita azaldu ziren denak, unformatuta bezala, zein baino zein erakargarriago; diskretua izaten saiatu nintzen, baina bakoi-tzak hiruzpalau segundoko aurkezpena baino egin ez bazuen ere, goitik behera azertu nituen, aurpegiera, titiak, ipurmamiak... dena. Sei neska, baina nire sukarraldietako *Flor del Caribe* hura ez zen azaldu, jaieguna izango zuen, edo beste bezeroren batekin egongo zen; ez zidan ardura, gainontzekoak ere ederrak ziren, oso. «Zein duzu gustukoen?», galdetu zidan ugazabandreak azken neskak alde egin zuenean, «Maika», erantzun nion. «Ederto, logelara lagunduko dizut, eta berehala etorriko zaizu».

Logela zabala zen eta argitasun handikoa, hornidurak garbi adierazten zuen prostituziorako beren beregi egokitutako etxea zela, metro eta erdi zabal zuen ohearen alboan jakuzzi bat baitzegoen, «zerbitzu berezietarako izango da», pentsatu nuen; eta ate ostean, bidet bat. Logela aztertzen nengoela, Maika sartu zen. «Arratsalde on! Maika naiz», agurtu ninduen. «Bai, Maika, ni Fernan naiz», erantzun nion urduri –ilehoria zen, nik baino urteren bat gehiago izango zuen, eta gozo hitz egiten zuen; berbakera horrek lasaitu egin ninduen eta gustura sentitzen hasi nintzen–, «Zerbitzu honen prezioa laurogeita hamar euro da», gaineratu zuen; lehenengo eta

behin ordaindu egin behar nuela diskrezioz esateko modu egokia iruditu zitzaidan. Ordaindu egin nion. «Arropa hor eskegi dezakezu», esan zidan horman zegoen kako bat seinalatuz. Biluzten hasi nintzen, lotsakitzikapen-morbo dei genezakeen sentsazio nahaste batekin, biluzten ez den eta begira dugun emakume batek eragindakoa.

Erabat biluzik geratu nintzenean, eskutik oratu eta bidetera eraman ninduen, «eseri, laztana», esan zidan, eta eskuan xaboia hartuta zakila eta barrabilak garbitu zizkidan, oso laztan leunez garbitu ere; esku xaboiztatua- ren fereka ipurditik zakilbururaino igartzen nuen, eta baretu egin nahi izan banuen ere, zakila, nire gogoari jaramonik egin gabe, sutu eta gogortu egin zen bat-batean. Maikak eskuoihal bat hartu eta zakila eta hankartea sikatu zizkidan, «zelan jarri zaizun, e!», esan zidan, «zeuk jarri didazu horrela», erantzun nion. Zapata takoidunak erantzi zituen, eta ondoren aldean zeraman body gorria, hain astiro non denbora izan nuen gogoratzeko beti gustatu izan zaidala emakume bat biluzten ikustea; erantzi ahala beren sentsualtasun guztia agerian geratzen zaiela iruditzen zait, azala sentsualtasunez igurtzi izan balute lez. Biluzik geratu ginen biok aurrez aurre; benetan ederra zen. Ohean eseri zen. «Eser zaitetz hemen, nire alboan», esan zidan, eskutik oratuta ohe gainerantz nindera- mala. Bere ondoan eseri nintzen.

Hurreratu egin zitzaidan, ahoa nire ahoaren ondo- ondoan jarri arte, Maikaren hatsaren epeltasuna igarri nuen ezpainenetan, ahoa erdi irekiarazi zidana, baina aho- an musurik eman barik, ezpainak nire titiburueta- ra eman zituen, eta miazkatu egin zizkidan; zirrara bat sen- titu nuen bularrean eta bizkarrezurrean behe- ra. Titibu- ruak jaten zizkidala, bultzadatxo bat egin zidan ohean etzateko agindu gura balit bezala; bera gainera etorri

zitzaidan eta nire gorputz guztia miazkatzen jarraitu zuen: lepoa, bularra, sabela... Samurra zen Maika nire gorputza menperatzen sentitzea; eta nik bere gorputz biluzia ferekatu baino ez nuen egiten. Sabeletik behera egin zuen ezpainekin, eta mihi punta hezearekin. Izterretan gora eta behera labaindu zidan mihia, samur; eskuak nire gorputzean gorago zerabiltzan, nire sabela eta bularra laztantzen, baina emeki-emeki beherantz ekarri zituen, aldaketatik izterretarantz, eta izterretatik erdialderantz, sexuaren erdigunerantz. Barrabiletatik hasita esku ahurra bete zion fereka bat oparitu zidan, goranzko fereka bat esku ahurra nire zakil gainean pausatuta arte; «Oso zakil polita duzu», esan zidan, ahoa hankartera zeramakidala. Sugar bizi batek inguratu zizkidan barrabilak, Maikaren mihiaren ukitua sentitzean; eta bulkada bortitzegia egin zitzaidanez, beso artean bildu eta neure azpira ekarri nuen. Gustura sentitu nuen bera ere, nire besoen besarkada samurra iruditu izan balitzaio lez.

Musu bigun bat eman nion ezpainetan, eta Maikaren lepora eramanez nituen ezpainak, lepotik belarri ondora, eta lepora atzera ere. Begiak itxita zituen, nire ahoaren hezetan epela gozoa egiten zitzaiola pentsatu nuen, eta lepotik beherantz, bularrerainoko ildo heze bat marratu nion, eskuak, leun, titi banatara eramaten nizkion bitartean, ukitu bigun bat besterik ez, baina esku ahurrak samurtasunez bete zizkidan ukitua; ahaztua nuen emakumezkoen bularren ezia. Ahoa bular haietara joan zitzaidan, erakargarritasun geldiezin batek eramanda, eta bular haien inguruak ferekatzen nituela, titiburuetatik edan nuen emakume baten bularrak baino ezin eman dezakeen babes, eta babes horretan murgildu nintzen tarte batez. Bularretik sabelarantz egin nuen, Maikaren azalaren zentimetro guztiak musukatu

eta ukitu nahi nituen. Sabela alderik alde dastatu nue-
nean, eskuekin gerriaren albo bietatik oratuta, birarazi
egin nuen eta ahuspez jarri.

Maikaren sorbalden eta bizkarraren ukitua ere sen-
titu nahi nuen, eta goitik behera miazkatu nion bizka-
rra. Maikaren gainean etzanda, eskuak bere gorputz
pean, titietatik heltzen niola, mihia bizkarrezurrean
behera pasatu nion, ipurmamietaraino. Samurra zen oso
Maikaren gorputz epela neurearen azpian edukitzea.
Bere bizkarrarekin jokoan nenbilela, neure zakilaren
gogortasuna igarri nuen Maikaren ipurmamien gainean,
eta beherantz jarraitu nuen. Ipurmamietara helduta,
hozkada txikitxo bat egin nion, ipurditxoaren trinkota-
suna sentitzeko. Baina senak beherago eraman nin-
duen, barrurago, izterrak dastatzera, lehenengo; eta izte-
rretatik, ipurmamien artetik, bere hankartera gero.
Mihia puntarekin Maikaren sexuaren oihana iker-
tzera sartu nintzen, hango iturrietatik edatera. Nire
mihia aluan barneratzen sentitu zuenean, gozatu egin
zen apur batez, urrumaka; gero, altxatu egin zen bat-
batean, aurrez aurre jarri zitzaidan, eskuak aurpegira
ekarri zizkidan, begiak nire begietan josi eta bere ezpai-
nak neuretarantz hurreratu, kontakturik gabeko ukitze
sentsazio bat igarri nuen, elkarren ahoetatik milimetro
batera, elkarren arnasak arnasa bakarra balira lez...
ahoa zabaldu zuen... eta musu luze bat eman zidan,
beroa eta samurra, inoizkorik samurrena, inoizkorik
umelena; segundo batzuek Maikaren mihiak aho barre-
na ferekatu zidan, mingaina xurgatu zidan, neure aho-
tik arnastu zuen. Ahoa niretik banandu zuenean, bere
mihi-puntaren fereka bustia sentitu nuen ezpain ertze-
tan, eta begira geratu zitzaidan, aurrez aurre eta tinko,
begirakune garbia izan zen; eta hitzik gabe, baina elkar
ondo ulertzen duten maitale biren antzera, makurtu

egin ginen biok, bata bestearen sexuaren alderantz. Ohean etzanda biok, ahoa Maikaren alu aldean murgildu nuen, eta berak nire zakila ahoratu zuen. Arnasa estutu egin zitzaigun, mingainekin batera gerriak ere astintzen hasi zitzaizkigun; gorputzak ahaztuta, burua apur bat galduta, elkarren sexuguneak baino ez genituen helburu. Maika gelditu egin zen, bat-batean, aratirik jarrarazi ninduen, nire gainera etorri eta zakila izter artera eramanda, barneratu egin zuen; eskuak bular gainean ezarri zizkidan, eta gerria astintzeari ekin zion. Hiruzpalau astinaldi baino ez ziren izan, bulkada batez aspalditik nuen beharrizana salatzen zuen orgasmoa etorri baitzitzaidan.

«Arinegi amaitu duzu; txarto geratu zara?», esan zidan; «Ez, oso ondo geratu naiz»; «Ez bazara ondo geratu, berriro egingo dugu», gaineratu zuen, eta bere begiradan benetan ari zela igarri nuen; «Ez, benetan, ondo geratu naiz».

Ohetik altxatu nintzen, gakoan eskegita nituen arropak jantzi, eta Maika agurtu nuen.

Beharbada, arinegi joan nintzen Maikaren albotik, baina sexu kitzikapena baretuta, Maikarekiko konfiantzarik ezaz jabetu nintzen, eta elkarrekin eman genuen tartea samurra izan bazen ere, lotsa sentitu nuen, horrelako leku batera joateagatik, eta nire sexu beharrizanak ezin ostentzeagatik ere bai.

Handik irtenda, kaleetan zehar abiatu nintzen, jakaren lepo altxatuekin aurpegia ostenduz, milioi bi bizilagun dituen hiri hartako lau milioi begiak begira, erru eta bekatu sentsazio nahaste batekin, eta oraindik ondo gogoan ditudan gogoetekin: zulo bat naiz espaloien solidotasunaren gainetik, bakardadezko zuloa, baina zure musurik samurrena daroat neurekin, behinik behin.

Hotelera heltzean, oraindik sumatzen nuen bakar-dadezko zuloa barruan; areago, errudun sentitu nintzen, gorputzari eskatzen zidana eman izana txarra balitz bezala, zikina, lotsagarria. Maikaren ahotsaren ezia, azalaren epela, eta musu samur hura gogoratzean, baina, berriro joateko gogoa sortzen zitzaidan. Kontraesan izugarria nuen: gorputzaren eskaria, beharrizana, batetik; eta inguruan nuen gizartearen ildo meharretan ibili izanak ondo hezitako kontzientzia, bestetik, kontzientzia lokarritua beharbada. Nik ez nuen artean garbi ikusten gizakiok aldean daramagun bikoiztasuna: jatorriz garena, sentsazioz eta sentimenduz osatutako izakiak; eta sentsazio horiek lotzen zituen uhala, ona eta txarra, bekatua eta bertutea.

Kontraesanak kontraesan, hurrengo eguna inguruko neska guztiei begira pasatu nuen berriro; eta sexu grinak, noski, ez zuen behera egin. Aurkitu berri nuen neskalagun bat balitz bezala ikusten nuen Maika, baina berekin egotearren ordaindu egin behar izan nuela ahaztu gabe. Pozten nintzen, ordea, ez nuelako prostituta batekin egon nintzelako sentsaziorik, neska samur batekin egon nintzelakoa baino; eta horrek errudun sentimendua arindu egiten zidala konturatu nintzen. Kezkatu ere egiten nintzen, baina, ondo garbi ikusten bainuen aspalditik hankartean neraman berotasun sentsazioak ez zuela behera egin. Barrabiletatik tiraka moduan nuen berotasun gori bat, geldiezinezko egosaldi bat. Hala ere, ontasunaren eta zintzotasunaren zentzuak ondo sustraituta nituenez, berotasun hori galarazten saiatu nintzen, osterara ere, nire bizitza guztian egin nuen lez; konturatu barik aurreko egunean hartu nuen bidea itzulerarik gabeko bidea zela, aurrean neukan muga bat zeharkatu nuela, muga oraindino bazegoen arren, hormarik ez balego lez; marra bat zegoen, erdi sumaezina, ordea.

Bazkalorduan, egunkaria zabaldu nuen, betiko lez; eta betiko lez, hango albistek ez nindutela erakartzen konturatu nintzen, futbolari buruzko albistek ez zutela nire gustuko taldearen aipamenik egiten; bertako politikak ez zuela nirekin zerikusirik iruditzen zitzaidan, ni mundu honetan uharte bakar baten modukoa nintzen; ez zegoen ezer munduan nire arreta erakar zezakeenik emeak baino, eme beharra sentitzen nuen, ez munduko arazoak konpondu beharra, nahikoa nuen nire gosea asetzearekin, eta ez nuen neure burua kapaz ikusten beste arazoez kezkatzeko. Baina, batez ere, barruko ezin-negonak *Relax* sailera ninderaman berriro; ezin saihestu nuen bulkada batek bizkortu egin zizkidan bihotz tau-padak, eta menpekoak drogaren deiari ezin uko egin dion bezalaxe, ezin izan nion nik uko egin *Relax* sailaren deiari.

Orrialde bi ziren, iragarki laburrez josirik, denak antzekoak azken finean; baina nik, ez dakit zergatik, pare bat egun lehenago egina nuen nire aukera, eta haien guztien artetik hiru aukeratu nituen. Lehenengoa probatu nuen, eta Maikak utzi zidan samurtasun sentsazioak erakarri egiten ninduen, eta estutasun moduko bat zekarkidan tripetara; baina baneukan beste sentsazio bat, estutzenago ninduen: sentsazio berriak bilatzearena, alegia.

Bilatu inkontzienteki egiten dugu sarri askotan, memento hartan aldeztu aurretik aukeratua nuen iragarrietako batera ninderaman-eta begiradak: *Teresa y Pepita, maduritas*.

Gogoan nuen Nicaragua kaleko 1 zenbakian zeudela; banekien zein zen Nicaragua kalea, urrun samar zegoen, baina oinez abiatzea erabaki nuen, bidean hobeto pentsatzeko edo damutzeko denbora izango nuelakoan edo. Tripetako kirioak estututa neramatzan

harako bidean; baina Nicaragua kalera hurreratu ahala, gero eta garbiago ikusten nuen ez nintzela damutuko, emakume heldu bat, ni baino zaharrago zen bat dastatu nahi nuela.

Heldu nintzen Nicaragua kalera, eta atarien zenbakiei jarraitu nien kalean behera. Lehenengo zenbakiak atari dotorea zeukan, atezain automatikora hurbildu nintzen, eta lehenengo solairuko txirrinetako bat gorriz pintatuta zegoen. Botoia sakatu nuen, eta handik segundo batzuetara, ezer galdetu gabe, atea ireki zidaten. Oinez igo nintzen, eta pauso bakoitzean dardara leun bat sentitzen nuen hanketan. Lehenengo solairura heltzeaz batera, eskumaldeko atea ireki egin zen, eta atso zahar dotore batek «arratsalde on» esan zidan. Nik ere «arratsalde on» erantzun, eta egongelara jarraitu nion; andrazko bi zeuden han, egongelako sofan eserita, berrogeita hamar urtetik gorakoak biak, eta begiak euretako batenganantz joan zitzaizkidan, ni baino hogeita bost urte inguru zaharragoa izan arren, polita eta erakargarria egin baitzitzaidan. «Teresa eta Pepita» esanez egin zuen aurkezpena atsoak, «zein duzu gustukoen?», «Pepita», erantzun nuen, harengan nituen begiak josita-eta. Pepita altxatu egin zen, eta bere atzetik abiatzeko keinua egin zidan.

Egongelako ate batetik harantz logelak eta bainugela zeuden. Logelara eraman ninduen lehenengo, eta ea zer zerbitzu mota nahi nuen galdetu zidan; lasai egon nahi nuela, eta ordu beteko zerbitzua eskatu nion, ez nuen nahi-eta arineketan atera aurreko egunean Maikarekin egin nuen lez. Zerbitzuaren prezioa esan zidan, eta ordaindu egin nion lehenengo eta behin. «Albornoz hau eta txankleta horiek har ditzakezu, hor aurrean duzu bainugela dutxa bat hartzeko, ni laster etorriko naiz». Biluzi egin nintzen, albornoa eta txankletak

jantzi eta logelaren aurrean zegoen bainugelara abiatu nintzen. Ondo azertu nuen, txukun zegoen eta horrek lasaitu egin ninduen; dutxa bat hartu eta logelara abiatu nintzen berriro. Txankletak eta albozoa erantzi eta ohe gainean etzan nintzen biluzik, Pepitaren zain.

Urduri nengoen, nire heziketa matxistak emakume baten aurrean itxura ona eman behar nuela esaten baitzidan, sexuan ere arra ar dela eta emea ase geratu behar dela, alegia; ez nuen irten nahi aurreko egunean bezala ni korritu eta Maika korritu ez zelako sentsazio okerraz, edo arinegi korritu nintzelako sentipenaz. Horrelako gogoetekin nenbilela, Pepita sartu zen.

Logelako ate ondotik begiratu zidan, eta niri bizkarrara emanda, biluzten hasi zen: zapatak lehenengo; gero atorra erantzi, eta ondoan zuen kako batean eskegi zuen; gona erantzi zuen ondoren, eta aldean kuleroak eta sujetadorea baino ez zituela geratu zen; atzetik ikustean, adina nabarmentzen zitzaion azalean, haren haragia ez baitzen Maikarena bezain estua, baina gustura begiratu nion. Bularretakoa askatu, eta kuleroak erantzi zituen. Nireganantz biratu zenean, Pepitaren titi erori-
xeak ikusi nituen, zuritxoak, baina gustatu egin zitzaizkidan; urteak zituen, baina emakume erakargarria zen. Ohera etorri zen, eta nire alboan etzan zen begirada bihurritz. «Oso guapoa zara», esan zidan ezkerreko eskuaz bularra laztantzen zidala. «Zu ere emakume ederra zara», erantzun nion, eta benetan ederra iruditzen zitzaidan, bere begirada eta hizkera Maikarena bezain samur egiten ez zitzaizkidan arren. «Nongoa zara?», izan zen Pepitaren bigarren galdera, eskua bularretik sabele-
ra eta izterrerantz zekarkidan bitartean; «Bilbokoa, eta zu bertakoa zara?». «Bai, Bartzelonakoa naiz, katalan peto-petoa», erantzun zidan, eskua nire zakilaren gainean pausatu zuelarik; eta aldi berean begiak nire begie-

tan josi zituen, bere eskuaren ukitua zakilean igartzean zelako erreakzioa nuen ikusteko edo.

Birikak airez bete nituen Pepitaren eskua zakil gainean igartzean; bera bularra musukatzen hasi zitzaidan, eta ezkerreko eskuarekin mugimendu leun-leunak egingen jarraitu zuen zakil inguruan. Eskua bizkarrean jarri nion, eta goitik behera lastandu nuen; azal gozoa zeukan, esan dudan bezala haragia hogeita hamar urteko batena baino bigunagoa, baina, hala ere, gozo. Bizkarretik behera egin nuen eskuarekin, Pepitaren ipurdiraino, eta esku ahurra ipurmatrailetako haragiz beteta nabaritu nuenean, estualditxo bat egin nion, eta gehiago berotu nintzen.

Benetako gizon baten moduan geratu nahi nuen, eta Pepita beso artean hartuta, biratu egin nintzen eta neure gorputz azpira ekarri nuen. Begira geratu zitzaidan, zer egingo ote nuen zain. Nik ere begietara behatu nion zuzen, eta urduritasun moduko bat igarri nion. Ezpainak lepora hurreratu nizkion, eta belarri ondotik sorbaldarainoko bitartea miazkatu; handik bere bular aldera egin nuen. Titiak biguntxoak zituen, baina leun-leunak; eta titiburuak benetan ederrak, txikitxoak eta tenteak. Tontortxo haiekin jostatu nintzen, zapore fresko hura mihi puntarekin dastatuz, hozkada biguntxoekin ahoa betez. Pepita geldi geratu zen, otzan, nire gogoa bere gorputzak eskaintzen zizkidan zapore eta usain guztiez zentzumenak asetzea zela ondo ulertuz. Izterrak banandu nizkion, eta eskuak bere ipurmamien azpian jarrita, ahoa hankartean sartu nion. Alu inguruak jan nizkion lehenengo, Pepitak bere erraien atea zabal ziezadan egiten nion deia baino ez zen; eta berak nire deiari erantzunez, urrumatxo bat egin zuen eta gerriarekin nire alderanzko mugimendutxo xume bat, atea zabalik nuela adierazi nahi balit bezala. Mihi punta

aluko ezpainetara joan zitzaidan, eta ezpainak musukatutakoan, ezker-eskuin mugituta, barreneko tontortxoaren bila abiatu zen. Gustura jostatu nintzen Pepitaren hankarteko garautxoarekin. Txitean-pitean, garautxoa laga, eta izterrondotik uzkirainoko tartea milikatzen nion; pare bat miaskada eta Pepitaren klitorisaren bila egiten nuen berriro. «Hau abisatu egiten da, e!», esan zidan, baina ez nion erantzunik eman, gustura ari nintzen bere alua jaten eta xurgatzen, eta horrela segitu nuen, esku ahurrak bere ipurmamiz beteta, arnasa sakondu eta gerri astinaldiak etorri zitzaizkion arte. «Korritu egin zara?», galdetu nion; «Bai». «Ez da izango!», zalantza egin nuen-eta ez ote zebilen plantetan. «Zer uste duzu, bada, titiak eta alua jaten dizkidazunean ez dudala ezer sentitzen, ala?».

Pare bat hasperen egin zuen, eta nire gainera etorri zen, nire zakilaren gainera, hobeto esan. Zakiletik oratu, ezer esan barik, begirada maltzur bat baino ez, eta ahoratu egin zuen. Nire kirten gorian gora eta behera igurtzi zuen mingain epela; zakila ahoan sartu eta atera erabili zuen, ezer esan gabe. Nik irakiten neukan hankartea, eta Pepitak xurgatzeari ekin eta ekin. Agerian zegoen ez zeukala gelditzeko asmorik, ez baitzuen ahoa nire zakiletik aldentzen; eta egin zuen mugimendu bakarra ezkerreko eskuarekin izan zen nire barrabilei heltzeko. Jarrera horretan ekin zion lanari, ezkerrekin barrabil jolasa, eta ahoarekin zakil-jana. Txundituta nengoen Pepitaren ekinarekin, adoretzu ari baitzen nire orgasmoaren bila. Ni itzel ari nintzen gozatzen jasotzen ari nintzen felazioarekin; baita Pepitaren irudiarekin ere, nire zakilburua edoskitzen: eder zegoen.

Errealdi moduko bat hasi nintzen sentitzen barrabiletatik zakilbururaino, nire orgasmoaren aurrekari nabarmena. «Korritu egingo naiz», esan nion, ahoa

aldendu nahi bazuen-edo; baina Pepitak lanari, edo janari, ekin zion. Azkenean, gerri astinaldiez lagunduta, hazia isurarazi zidan bulkada hurrenkera bat etorri zitzaidan, eta Pepitak nire zakilaren iturritik edan zuen. Berriro begiratu zidan begietara zuzen, ea gustura geratu nintzen baieztatzeko-edo, eta nire alboan etzan zen.

Ez genuen berba askorik egin, gogoan dut gazterik alargundua zela esan zidala, eta nire bularreko ileekin jostatu zela, eta halako batean, disimuluan, erlojuari begiratu ziola eta eskua zakil gainera ekarri zidala, atzera; orduan ulertu nuen bigarren narrutaldiaren ordua zela.

Zakila segituan gogortu zitzaidan egin zidan igurtziarekin. Bera etzanda geratu zen, ahoz gora, eta ni gainera joan nintzaion. Titiburuak jan nizkion, eta ezpainak musukatu; mihia ere pasatu nion ezpainetatik, ea musu samurren bat lapurtzen nion; baina ez zuen ahoa ireki. Hankak zabaldu baino ez zuen egin, nire zakila barnean jasotzeko. Estu-estu besarkatu ninduen, neuk ere estu besarkatu nuen bera; eta gerriak mugitzen hasi ginen, astiro. Elkarren azalen igurtzia sentitzen egon ginen tarte batez, zakil-aluen irristatze epelaz gozaten. Horrelaxe, astiro-astiro, epel-epel, korritu nintzen bigarrenez, baina orduan Pepitaren barruan.

Banandu egin ginen, jantzi, eta hurrengoan ere joateko esan zidan, oso gustura egon zela nirekin, mutil atsegina nintzela, eta euskaldunak gustuko zituela.

Nikaragua kaleko 1 zenbakiko ataritik atera nintzen, eta oinez abiatu nintzen hotelerantz, ibilbide luze-txoa neukan hara iritsi arte; eta osteria ere, bakardade sentsazio batek bereganatu ninduen espaloietan zehar nindoala.

Horrekin ez ziren amaitu nire sukarraldiak, ordea, prostitutenganako bideari ekin egin bainion sasoi batez; baina orain atzerantz begiratzean, muga bat zeharkatu nuela iruditzen zait, horma bat gainditu, edo erreala ez den harresi bat suntsitu nuela, eta emakumeenganako bide bat ireki nuela, basamortuan galtuta dabilenak ispilatzearen ostetik benetako oasia aurkitzen duenean moduan; handik aurrera, prostitutei hurbildu nintzaien bezala, sexuaren profesionalak ez ziren emakumeengana hurbiltzen ikasi nuen.

Lanak beste askotan ere eraman ninduen Bartzelona aldera, eta *Relax* sailean egindako hiru aukeretako azkenari askotan erreparatu nion: *Viciosas, dúplex real, observa como hacemos el amor, y participa*. Baina ez dakit zer ezkutuko arrazoirengatik ez nuen sekula telefono hartara deitu. Pepitari beste bisitalditxo bat egin nion, eta beste bi narrutaldi goxo izan genituen. Maikarekin behin baino ez nintzen egon, eta ez dut harrezkero ikusi; bere samurtasunaz, oraindik ere, sarri gogoratzen naizen arren.

Urteak asko iragan dira harrezkero, baina aitortu behar dut nire amets erotikoen punturik gorena aldi berean emakume birekin egoteak hartzen duela oraindik ere: haiek elkar zelan ukitzen duten ikustea, elkarren gorputza zelan milikatzen duten, eta, batez ere, haiek biak batera nire zakila milikatzen imajinatzea, eta gero biak izorratuko nituzkeela pentsatzea.